

Leposoila oilarra







Eusko-oiloa oilo arrazaren barruan, leposoila moietakoa bere ingurukoekin parekatzen badugu desberdintzapen morfologiko nabari bat azaltzen du, eta ez dago lumaiaren kolorazioan oinarritua, lepo inguruan lumarik ez izatean baizik.

Lumarik ez izatea Na (*Naked-Neck*) deritzaion genak erregulatzen du. Gen hau autosomikoa eta menderapen erozokoa da; beraz, sexoarekin erlaziorik ez duenez, ar eta emeetan era berean agertzen da eta izaki homozigoto (NaNa) eta heterozigotoen (Nana) presentzia sorteraziko du.

Naked Neck-aren proportzio nabaria agertzen duten hegazti gehienak alderdi subtropikal, tropikal edo ekuatorialetan kokaturik aurkitzen dira, honak klima hezeetara moldatzea iradokitzen du. Europan ezaugarri hau, leposoillaz gainera, Hungria eta Rumania inguruetan -*Transylvanian Naked Neck* arraza- eta Frantzia -*Cou Nu du Forez* arraza- Las Landas inguruan aurki daiteke.

Argitarapen gehienak Na gena tenperatura altuetan eta *broiler* eta arrautzak ekoizteko erabiltzen bada eraginkortasun handikoa izango dela adierazten dute; eta tenperatura behar denaren behetik badago ondorioak ez dira hain onak izango. Fraisoroko lkerke-

Tabla 1
SEGREGACION FENOTIPICA

FUENTE: Elaboración propia.

tako Unitateko lanek, hasierako fasean, ahalbide hau baieztatu egiten dute, errustizidade mail altu bat ingurugirora moldaketa hobe bat aurkitu dute. Ezaugarri hauek bere haragi kalitatearen faktore batzuetan eragin handiko elementuak bezala erabil daitezke.

Mendelen genetika

Hala eta guztiz ere, artikulu honetan ez dugu ahalbide horretan sakondu nahi, baizik eta gurutzaketa ezberdinetatik lortu diren datoek Mendelen genetikaren legeak jarraitzen dituztela egiaztatu besterik ez. Taula 1 eta 2ak

Tabla 2
SEGREGACION DEL GEN 'NAKEA'

$\begin{array}{c} \text{Na Na} \times \text{Na Na} \\ \quad \\ \text{Na} \quad \text{Na} \\ \diagdown \quad \diagup \\ \text{NaNa} \end{array}$	$\begin{array}{c} \text{Na Na} \times \text{Na na} \\ \quad \\ \text{Na} \quad \text{Na na} \\ \diagdown \quad \diagup \\ \text{NaNa} \quad \text{Nana} \end{array}$	$\begin{array}{c} \text{Na Na} \times \text{na na} \\ \quad \\ \text{Na} \quad \text{na} \\ \diagdown \quad \diagup \\ \text{Nana} \end{array}$
$\begin{array}{c} \text{Nana} \times \text{Nana} \\ \quad \\ \text{Na na} \quad \text{Na na} \\ \diagdown \quad \diagup \\ \text{NaNa} \quad \text{Nana} \quad \text{nana} \end{array}$	$\begin{array}{c} \text{Nana} \times \text{Nana} \\ \quad \\ \text{Na na} \quad \text{na na} \\ \diagdown \quad \diagup \\ \text{Nana} \quad \text{nana} \end{array}$	$\begin{array}{c} \text{nana} \times \text{nana} \\ \quad \\ \text{na na} \quad \text{na na} \\ \diagdown \quad \diagup \\ \text{nana} \end{array}$

FUENTE: Elaboración propia.



Leposoila oilar monoigotoa (NaNa).



JOSEAN MENDIZABAL

Heterozigoto arrak (NaNa) luma motots bat du lepoan.

gurutzaketen fonotipoak eta genaren bereizgoa azaltzen dituzte; NaNa X Nana gurutzaketen ondorioak egiazta-tu egiten dira, 3. taulako χ^2 etan (CHI CUADRADO) adierarik ez dagoelako.

Soila (Nana) eta *motots* (Nana) fenotipoen arteko gurutzaketek sortuko dituzten ondorengoen erdi bat *soilak* izango dira eta beste erdia *mototsak*. *Mototsa* (Nana) fenotipoen arteko gurutzaketak, berriz, sortutakoan laurden



JOSEAN MENDIZABAL

Txito lepoila jaio berria.

Tabla 3

CRUZAMIENTO DESNUDO (NaNa) x 'PENACHO' (Nana)

NUMERO DE HEMBRAS POR MACHO	FENOTIPOS OBSERVADOS (ESPERADOS)		χ^2
	'PELADO'	'PENACHO'	
3	17 (15)	13 (15)	0,53

CRUZAMIENTO 'PENACHO' (Nana) x DESNUDO (NaNa)

NUMERO DE HEMBRAS POR MACHO	FENOTIPOS OBSERVADOS (ESPERADOS)		χ^2
	'PELADO'	'PENACHO'	
2	1 (1.5)	2 (1.5)	0,33
6	36 (38.5)	41 (38.5)	0,32
2	13 (10.5)	8 (10.5)	1,19
3	17 (21)	25 (21)	1,52
13	67 (71.5)	76 (71.5)	0,57

RESULTADOS GLOBALES PEN. x DES. y DES. x PEN.

NUMERO DE HEMBRAS POR MACHO	FENOTIPOS OBSERVADOS (ESPERADOS)		χ^2
	'PELADO'	'PENACHO'	
3	17 (15)	13 (15)	0,53
2	1 (1.5)	2 (1.5)	0,33
6	36 (38.5)	41 (38.5)	0,32
2	13 (10.5)	8 (10.5)	1,19
3	17 (21)	25 (21)	1,52
16	84 (86.5)	89 (86.5)	0,14

CRUZAMIENTO 'PENACHO' (Nana) x 'PENACHO' (Nana)

NUMERO DE HEMBRAS POR MACHO	FENOTIPOS OBSERVADOS (ESPERADOS)			χ^2
	'PELADO'	'PENACHO'	CUBIERTO	
2	3 (2.5)	6 (5)	1 (2.5)	1,17
6	8 (15)	35 (30)	17 (15)	4,37
5	19 (15.5)	30 (31)	13 (15.5)	1,22
1	3 (2.25)	2 (4.5)	4 (2.25)	3,00
14	33 (35.25)	73 (70.5)	35 (35.25)	0,23

FUENTE: Elaboración propia.

bat *soilak* (NaNa), beste laurden bat *estaliak* (nana) eta geratzen den erdia *mototsak* (Nana) izatea eragingo du. Logikoki, *estali* (nana) fenotipoen arteko gurutzaketak egiten badira ondorengo guztiak *estaliak* izango dira.

Bukatzeko, gen honek lepoiletan (NaNa) duen eragina ez da lepoan bakarrik agertzen, sorbaldak, papo inguruak, izterren barruko aldea eta sabela ere lumarik gabe egoten dira; *moto-*

tsa (Nana) moietetan, berriz, lumaia falta lepoaldean bakarrik azaltzen da. □

María Eugenia Amenabar Arzuaga
Alberto García Sanz
José Antonio Mendizabal Aizpuru
 FRAISOROKO NEKAZAL
 IKERKETAKO UNITATEA
 Zizurkil (Gipuzkoa)